

# Hezkuntza ikerketarako hastapenak: Giza eta Gizarte Zientziak

## 1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa III
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Andoni Olariaga Azkarate

## 2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan **Hezkuntza** alorreko ikerketak nolakoak izan ohi diren eta ikerketa horiek **nola diseinatzen diren landuko dugu**. Azken produktua horixe bera izango da: hezkuntza-ikerketa baten diseinua. Horretarako, hezkuntza-ikerketaren esparruko oinarriak ikusiko ditugu hasteko. Ondoren, ikerketa lantzeko tresna erabilgarri batzuk (bibliografia komentatua, kronograma) eta ikerketa-teknika ohikoenak landuko ditugu. Azkenik, ikerketa proiektuak ebaluatzen eta hobetzeko gomendioak ematen trebatuko gara.

Ikasgaia ahalik eta praktikoen izango da, lantzen ditugun elementuak zuen azken produkturako baliagarriak izan daitezen eta hasieratik bertatik has zaitezten ikerketen diseinuan trebatzen.

## 3. Konpetentziak

- Hezkuntzako ikerketa eta ebaluazioko oinarrizko metodologia eta teknikak ezagutu eta aplikatzea, eta ikerketa, berrikuntza eta ebaluazio-proiektuak diseinatu eta garatzeko gai izatea.
- Hezkuntzan oinarrizko etika eta ikerketarekin eta ebaluazioarekin batera joan behar duten kontsiderazio moralak ulertzea.
- Ikerketa edo ebaluazio-txosten baten kalitatea ebaluatzeko gai izatea, ezarritako irizpide batzuen arabera.

## 4. Ikas-emaizak

- Giza eta Gizarte zientzietako ikerketa eta, batez ere, hezkuntza arloko ikerketa zer diren ezagutzea.
- Hezkuntza-ikerketaren inguruko paradigmak eta metodoak ezagutzea eta proiektu propioetarako erabiltzen trebatzea.

- Beste ikertzaile batzuen lanak bilatzen, biltzen eta baloratzen ikastea.
- Hezkuntza arloko ikerketa-lan propio bat diseinatzen ikastea.

## 5. Edukiak

Hauek dira ikasgaiaren eduki orokorrak:

1. Hezkuntza-ikerketarako sarrera.
2. Ikerketen plangintza eta Gizarte Zientzietako ikerketa-teknikak
3. Ikerketa proiektuen ebaluazioa

Ikasgai honetako edukien artean honako hauek bereizi dira:

1. Hezkuntza Ikerketa: oinarrizko kontzeptuak
2. Hezkuntza-ikerketaren ikuspegi metodologikoak.
3. Berrikuspen bibliografikoa.
4. Ikerketa-arazoa formulatzea. Ikerketa-hipotesiak.
5. Ikerketa-aldagaiak.
6. Ikerketaren diseinua.
7. Kasuak eta laginketa.
8. Hezkuntza-ikerketako datuak biltzea.
9. Metodologia kualitatiboa.
10. Ikerketa-txostena.
11. Hezkuntza-ebaluazioaren tipologia.
12. Ebaluazio diagnostikoa

## 6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

## 7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

## 8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

## 9. Bibliografia

Oinarrizko bibliografia:

Juaristi Larrinaga, P. (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak. UPV/EHU.

Martínez González, R. A. (2007). La investigación en la práctica educativa: Guía metodológica de investigación para el diagnóstico y evaluación en los centros. Centro de Investigación y Documentación Educativa.

Mesonero de Miguel, M. (2005). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. UEU.

Wood, Phil, eta Joan Smith. (2018). Investigar en educación: Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación. Narcea.

Sakontzeko artikulak:

Esquivel Corella, F. (2013). Lineamientos para diseñar un estado de la cuestión en investigación educativa. *Revista Educación*, 37(1), 65–87.

Santiago Etxeberria, K., Jimenez-Arrieta, O., & Lukas Mujika, J. F. (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikerkuntzan. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 30(1), 87–111.

Komunikazioa eta testugintza lantzeko:

Garzia Garmendia, J. (2008). Jendaurrean hizlari: (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua. Alberdania.